

## XIX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

### Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
Zuri Aita esateko eskubidea ematen diguzu;  
eraman bere betera gure bihotzetan  
zeure seme-alabatzako espiritua,  
hitzemana zaigun ondarea irits dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Erg 19, 9a. 11-13a

*Zaude mendian, Jaunaren aurrean.*

Erregeen liburutik

Egun haietan, Elias Horeba, Jaungoikoaren mendira, etorri, eta hango hartzulo batean sartu zen. Jaunak honela esan zion: «Atera, eta zaude mendian, Jaunaren aurrean; Jauna igaroko baita». Hara, Haren aurretik haize zakar handi bat igaro zen, mendiak urratzen eta harkaitzak porrokatzen zituela: baina Jauna ez zegoen haizean. Haizearen ondoren, lurrikara; baina Jauna ez zegoen lurrikaran. Lurrikararen ondoren, sua; baina Jauna ez zegoen suan. Suaren ondoren, haize goxoaren zuzmurra. Hura entzun orduko, aurpegia soingainekoz estali zuen Eliasek; atera eta zutik gelditu zen hartzuloaren aurrean.

ERANTZUN SALMOA: Sal 84, 9ab-10. 11-12. 13-14

**R/. Jauna, zure onginahia erakutsiezaguzu,  
zeure salbamenaren emaguzu.**

Entzungo dut Jaunak dioen hitza:

«Bakezkoa da Jaunaren hitza».

Hurbil zaie Haren beldur direnei salbamenaren:  
gure lurrean Haren aintza biziko da. R/.

Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterako dira,  
zuzentasuna eta bakea laztanka biziko dira.

Lurretik erneko da leialtasuna,  
zerutik begira egongo, zuzentasuna. R/.

Jainkoak on dena emango du,  
gure lurra bere uzta ekarriko du.  
Zuzentasuna ibiliko da Haren aurrean,  
eta salbamenaren, Haren urratsen bidean. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 9, 1-5

*Anc*

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei**

Senideok: Kristau naizenez, egia esan behar dut; nire barruak, Espiritu Santuak argituta, esaten dit ez diodala gezurrik. Handia da nire atsekabea; etengabea, nire bihotzaren mina.

Anatema, Kristorengandik aldendua, izan nahi nuke nik, haragi aldetik nire senide eta senitarteko direnen alde. Israeldarrak dira hauek; eta beroiek dituzte semetzakoa, aintza, elkargoa, Legea, gurtza eta agintzariak. Hauenak dira aitalehenak, hauengandik dator, haragi aldetik, Kristo: gauza guztien gainetik dagoena, Jaungoiko bedeinkatua gizaldietan. Amen.

EBANJELIOA: Mt 14, 22-33

**Aleluia:** Sal 129, 5

R/. Aleluia.

V/. Jaunagan itxaroten nago,  
nire barrena Haren hitzaren zain dago. R/.

*Agindu iezadazu, Zeuregana joateko ur gainean.*

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik**

Jendeak nahiko jan zuenean, Jesusek bere ikasleak ontzian sarrarazi zituen, itsasoaz beste aldera joan zitezten bere aurretik, Berak jendea bidali bitartean.

Jendea bidali zuenean, mendira igo zen Bera bakarrik, otoitz egitera; eta ilundu zuenean, han zegoen bakar-bakarrik. Ordurako, ontzia lehorretik oso urruti zihoan, olatuek astinduta, haizea aurretik zuten eta.

Goiz aldera, Jesus ur gainean oinez hurbildu zitzaien. Ikasleak, ur gainean zebilela ikusi zutenean, ikaratu ziren eta honela zioten: «Mamuren bat da!» Eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren.

Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez izan beldurrik!» Orduan Pedrok erantuz: «Jauna, Zu baldin bazara, agindu iezadazu Zeuregana joateko ur gainean». Jesusek esan zion: «Zatoz!»

Pedro ontzitik atera eta ur gainean zebilen; eta Jesusengana zihoan. Baina haize zakarra zela ikusirik, beldurtu egin zen; urperatzen hasi zen eta deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!»

Berehala Jesusek, eskua luzaturik, hartu zuen, eta esan zion: «Sinesmen gutxiko gizona! Zergatik hasi zara zalantzan?»

Ontzira igo zirenean, haizea gelditu zen; eta ontzian zeudenak ahozpez jarri ziren Jesusen aurrean, esanez: «Egiaz Jaungoikoaren Semea zara Zu!»

**Oparigaien gainekoa**

Bihotz onez hartu, Jauna, zeure Elizaren dohain hauek;  
errukiturik, Zeuk eman baitizkiozu eskaintzeko  
eta Zeuk egingo dituzu gure salbameneko sakramentu.  
Jesu Kristo.

**Jaunartze ondorengoa**

Hartu dugun sakramentuak salba gaitzala, Jauna,  
eta sendo jarri zure egiaren argitan.  
Jesu Kristo.